

EUSKARA AÑANAN MINGAINEAN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.-

1997ko urtarrilaren 14an inskribaturiko eta Erregistro zenbakia AS/A/06457/1997 duen irabazteko asmorik gabeko AÑANA Eskualdeko EUSKARA AÑANAN MINGAINEAN Elkartearen Estatutuak ekainaren 22ko 7/2007 Legea eta martxoaren 22ko 1/2002 lege Organikoan, Elkarteei buruzkoa, ezartzen duenaren arabera izan dira aldatuak eta gaurkotuak 2009ko apirilaren 24an egindako ez ohizko Batzar Orokorran.

Aipatutako elkarteak honako araubidea izango du: Elkarteen Legea, estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira), bere Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen arauak (azken hauek osagarri besterik ez dira izango).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.-

Elkarte honen helburuak honako hauek dira:

- Euskara, gure hizkuntza, laera ateratzea.
- Haurren eta Nagusien edota Edatuen arteko elkararremanak euskararen eta euskaraz izan daitezen.
- Añana eskualdean bizi diren biztanleak euskara ikasi dezaten eta ondoren erabiltzea ausartu bultzatzea ere dugu asmoa.

Helburu horiek lortzeko, jarduera hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

- Urteroko euskararen aldeko festa antolatzea.
- Eskualde mailako Itzulpen Zerbitzua prestatu.
- Euskaltegia edo Gau-Eskola sortu eta indartu.
- Eskualdeko Udalerri eta herri ezberdinetan kultur ekintzak antolatu.

Aurreko idatz-zatian azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.-

Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da: Kalea: MILAGROS GONZALEZ zk.:1 –KULTUR ETXEA- LANGRAIZ OKA (ARABA)

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

Elkarte honek nagusiki lurralde-eremu honetan gauzatuko ditu bere helburuak:
EUSKAL HERRIAN.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

5. artikulua.-

Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluan esaten den bezala ezoniko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.-

Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.-

Batzar Orokorra bazkide guztiak osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desegitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea.
- g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaiolke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.-

Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta bilkura bereziak egingo ditu.

9. artikulua.-

Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: LEHEN hiru hilabetez izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.-

Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da bilkura berezian, bere ekimenez edota bazkideen %25(e)k eskatu duelako. Bilkura

eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko, bilkura berezia egingo da:

- Estatutuak aldatzeko.
- Elkartea desegiteko.



Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkura berezia diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiteko gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdiaren egunetik. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu bateko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak, arruntak nahiz bereziak, lehenengo deialdian bakoitzaren osoz erabakia erabakitzeko eskubidea duten elkartekideen herena bertarutzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.-

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kualifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko :

- Elkartea desegitea.
- Estatutuak aldatzea.
- Ondasunak erabili edo besterentzea.
- Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.-

Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

14. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: **LEHENDAKARIA, IDAZKARIA, DIRUZAINA, UDALEKO MAHAIKIDEAK**

Gutxienez BI HILABETERO bildu beharko dute, eta elkartearen jarduerak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara hiru aldiz jarraian, edo, tarteka bost aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

16. artikulua.-

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek bi urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan bildutako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- Estatutuaren aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- Elkarteko bazkidea izatea.

18. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Nagusiak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- Agintealdia bukatzen denean.
- Dimititzen baldin badute.

- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoia dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua arabera, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen baldin badira.

"a" idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoiak Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoiak hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behineko izendatuko da. Batzar Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Batzar egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.



Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

20. artikulua.-

Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorri eta haren kontrolpean.
- b) Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bilertako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorri.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.-

Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, eta horren faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

KIDE BAKARREKO ORGANOK

LEHENDAKARIA

22. artikulua.-

Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatu ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

23. artikulua.-

Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:


- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilera bukaturat eman, bilerean sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliozki erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

IDAZKARIA

24. artikulua.-

Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapeneri eta sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eskudunari.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

DIRUZAINA

25. artikulua.-

Egindako diru-sarrera eta ordaintzen berri emango du diruzainak, eta gastuen urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dituzko, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
ADMINISTRACION PUBLICA
Euzko Leuzaritzako Erregistroak

UDALERRIKO MAHAIKIDEAK

26. artikulua.-

Bere herriko bazkideen koordinazioak eta deiak egingo ditu.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK. ETA BAZKIDE-MOTAK

27. artikulua.-

Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta eabazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

28. artikulua.-

Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko dio lehendakariari bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin. Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsoa jar dakioko Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

29. artikulua.-


Elkarteko bazkide guztiak honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- 1) Elkarreei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- 2) Elkarteko gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaera, elkartearen kontu-egoera eta elkartearen jardueri buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Elkartearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoei parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Elkartearen talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazolei buruzko

- azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabeko ditzuten konpromisoak bete beharko dituzte.

Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organoek baliozki hartutako erabakietan erabaki horiek betetzea.



BAZKIDE IZATEARI UZTEA

31. artikulua.-

Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

1. Hil egitea.
2. Bazkidea bere borondatez joatea.
3. Zuzendaritza Batzordeak elkartetik bidaltzeko zigorra ezartzea, arrazoi honengatik: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

ZIGOR-ARAUAK

32. artikulua.-

Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betiko kanporatzea izan daiteke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalgo zaio Batzar Orokorrari.

33. artikulua.-

Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaike aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak arxibatzeko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espeditenteari hasiera ematea erabaki dezake.


34. artikulua.-

Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta Batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du parte hartuko espeditenteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsua ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak

inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idatziz espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesatutako aurkeztutako idatzia eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari idatziz izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.




35. artikulua.-

Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori inongo jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegiatarako ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.



36. artikulua.-

Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko da.



LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

37. artikulua.-

Elkartearen hasierako ondarea sei eurokoa da.

38. artikulua.-

Elkarteak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- Sarrera-kuotak.
- Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
- Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta ekitaldia urte bakoitzeko abenduaren 31an itxiko da.

Elkarteak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

39. artikulua.-

Estatutuak aldaketa Zuzendaritza-Batzordearen ekimenez edota bazkideen %25-ak eskatuta Zuzendaritza-Batzordeak hala erabakiz gero egin daiteke. Dena den bi kasuetan Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

40. artikulua.-

Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.

41. artikulua.-

Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.



Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Elkarteen Erregistroa

SEIGARREN KAPITULUA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Asociaciones

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

42. artikulua.-

Elkartea arrazoi hauengatik desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gubxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkartea desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

43. artikulua.-

Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarite-ondarea, geratzen bada behintzat, Añanako Eskualdean helburu berdintsuen elkartei eman beharko zaie.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak bame-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako agindua

AS/A/6457/1998

<p>Estatutu hauek ikus-onesi dira. Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horrekun bat datozen gainontzeko arauetan zehazturako ondoretarako.</p>	<p>Visados los presentes Estatutos. a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa concordante.</p>
<p>GASTEEN 20... (e)ko ...ren ... (e)(a)n.</p>	<p>En ... de ... de 20... de 20...</p>
<p>ERROLDAKO ARDURADUNA</p>	<p>ELLA ENCARGADO/A DEL REGISTRO</p>

